

AUTOEBALUAZIOA (9. GAIA)

1. Zein da zilindro baten luzera karakteristikoa?

- A Bolumena/Azalera
- B Luzera
- C Diametroa
- D Erradioa

2. Heisler grafikoetan erabili daitekeen Fourier balio minimoa zein da?

3. Biot zenbakia $< 0,1$ deneko kasuetan zein erresistentzia da arbuigarria?

- A Barne erresistentzia edo konbekzioa
- B Barne erresistentzia edo kondukzioa
- C Kanpo erresistentzia edo kondukzioa
- D Kanpo erresistentzia edo konbekzioa

4. Zein zenbaki adimentsional erlazionatzen dira Heisler-en grafiketan?

- A Grashof
- B Fourier
- C Tenperatura dimentsiogabea
- D Biot
- E Reynolds
- F Prandtl

5. Zein da xafla baten luzera karakteristikoa?

- A Bolumena/Azalera
- B Erradioa
- C Diametroa
- D Luzera (2L)
- E Luzera (L)

6. Noiz erabili daiteke parametro kontzentratuen sistemen analisisa?

- A $Bi < 0,1$ deneko kasurako
- B Nahaste perfektuan irabiatutako ontzietan berotutako elikagaien kasuan
- C Tenperaturaren banaketa uniforme ez denean
- D $Bi > 40$ deneko kasurako
- E Tenperatura posizioarekin asko aldatzen ez denean

7. Zilindro finituaren geometria definitzeko, zein elementu infinituren arteko biderkadura-ebazpidea burutu beharko dugu?

- A Zilindro infinitua
- B Xafla infinitua
- C Esfera

8. Biot zenbakiak konbekzioarekiko erresistentzia gorputzaren barnean eta kondukzioarekiko erresistentzia gorputzaren kanpo gainazalean erlazionatzen ditu.

- A Egia
- B Gezurra

9. Xafla finituaren geometria definitzeko, zein elementu infinituren arteko biderkadura-ebazpidea burutu beharko dugu?

- A Xafla infinituaren zabalera
- B Xafla infinituaren altuera
- C Esfera
- D Xafla infinituaren luzera
- E Zilindro infinitua

10. Zein hiru geometria esanguratsu ezagutzen dituzu Heisler grafikak aztertzerako orduan?

- A Xafla infinitua
- B Erronboa
- C Esfera
- D Zilindroa
- E Xafla
- F Zilindro infinitua

11. Zein da esfera baten luzera karakteristikoa?

- A Luzera
- B Diametroa
- C Erradioa
- D Bolumena/Azalera